


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2013ko martxoan

Euskal AEko industri jarduera %0,9 gutxitu zen 2013ko martxoan

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2013ko otsailarekin alderatuta %2,5 handitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2013ko martxoan %0,9 gutxitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2012ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %2,5 handitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2013ko otsailarekin alderatuta.



Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2013ko martxoko indizearen bilakaerak aldeak erakusten ditu, 2012koaren aldean. Bitarteko ondasunak %2,4 gutxitu dira, Ekipo-ondasunak %1,2 eta Kontsumo-ondasunak %0,6. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %5,5 gutxitu dira eta Kontsumo-ondasun iraunkorrak %12,1 handitu. Energia %4,5 handitu da.

2013ko martxoko hil arteko aldakuntza, 2013ko otsailaren aldean, positiboa izan da ia industri talde handi guztietan. Ekipo-ondasunak %4,1 handitu dira, Bitarteko ondasunak %3,1 eta Energia %1,2; Kontsumo-ondasunak %0,8 handitu dira otsailaren aldean. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %10,5 handitu dira eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %3,3 txikitu.

Euskal industrian pisu handienetako bi sektoretan hazkundeak ditugu 2013ko martxoan aurreko urteko hil beraren aldean: *Zura, papera eta arte grafikoak*, %+6,8 eta *Makineria eta ekipoa* %+5,5.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-1,5
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-7,8
09 - Kautxua eta plastikoak	-4,0
13 - Makineria eta tresneria	5,5
14 - Garraio-materiala	-7,2
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-1,0
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-0,3
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	6,8

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Jaitsierarik handienak: Energia elektrikoa, gasa eta lurruna, urte arteko %7,8, Garraio materiala, %7,2, eta Kautxua eta plastikoak, %4,0.

Urte artean, martxoan: Araban %-2,4, Bizkaian %-1,5, Gipuzkoan %+0,6. Hil arteko hazkunde-tasa positiboa izan da hiruretan: Araban, %0,6, Gipuzkoan, %4,7, Bizkaian %1,5.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hazkunde-tasak. 2013 martxoa. Behin-behineko datuak

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	2013Mar / 2012Mar	M(2013Mar) / M(2012Mar) *	2013Mar / 2013Ots	2013Ots / 2013Urt
Indize orokorra				
Euskal AE	-0,9	-3,9	2,5	-1,0
Araba/Álava	-2,4	-3,3	0,6	-0,3
Bizkaia	-1,5	-2,9	1,5	-0,7
Gipuzkoa	0,6	-5,2	4,7	-1,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-0,6	-2,2	0,8	0,3
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	12,1	-1,8	10,5	1,3
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-5,5	-2,4	-3,3	-0,1
Ekipo-ondasunak	-1,2	-7,4	4,1	-2,1
Bitarteko ondasunak	-2,4	-5,2	3,1	-1,9
Energia	4,5	6,2	1,2	0,8

(*) 2013ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2012ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Ohar metodologikoa: 2013ko martxoko Industri Produkzioaren Indizea 2010 oinarritzat hartuta egin da, aurreko oinarriari -2005- jarraituz. Oinarri-aldaketaren kariaz haztapen-koefizienteak 2010eko industri jardueraren egiturari egokitu behar izan zaizkio, eta informazio-unitateen panela berritu behar izan da, indizeen

adierazgarritasuna handitzeko, helburu-biztanleria etengabe aldatzen delako. 2010 oinarri duten serieak 2005ekoekin estekatu dira eta eskuragarri daude Eustaten datu-bankuan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua